

**GOBERNANTZA PUBLIKO ETA  
AUTOGOBERNU SAILEKO EMAKUMEEN  
ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO  
PLANA  
(2022-2024)  
XII. LEGEALDIA**

*Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila*



# AURKIBIDEA

Sailburuaren aurkezpena	3
Hitzaurrea	4
<b>1. Gobernu Programa</b>	<b>8</b>
<b>2. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana</b>	<b>11</b>
<b>3. Sailaren plangintza estrategikoa</b>	<b>17</b>
<b>3.1. Diagnostikoaren datu garrantzitsuak</b>	<b>17</b>
3.1.1. Gobernu onaren ondorioak	17
3.1.2. Esku hartzeko ardatzen gaineko ondorioak	24
<b>3.2. Helburu estrategikoak</b>	<b>27</b>
<b>4. Plana kudeatzeko sistema</b>	<b>28</b>
<b>4.1. Berdintasunerako urteko plangintza</b>	<b>29</b>
<b>4.2. Berdintasunerako egiturak</b>	<b>29</b>
<b>4.3. Jarraipen-sistema</b>	<b>30</b>
<b>4.4. Komunikazio-sistema</b>	<b>32</b>
<b>4.5. Aurrekontu-sistema</b>	<b>34</b>
<b>ERANSKINAK:</b>	<b>35</b>
V Plan de actuación en materia de igualdad de EJIE. 2021-23	
III Plan para la Igualdad de Mujeres y hombres ITELAZPI. 2019-23	
III Plan para la igualdad de Mujeres y hombres en IZENPE. 2021-24	

## AURKEZPENA



Berdintasun-planek hurrengo urteetan berdintasunaren arloan egingo dituzten ekintzak jasotzen dituzte. Horregatik, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak bere berdintasun-plana diseinatu du, 2022tik 2024ra egingo diren ekintzak jasotzen dituen.

Azken urteotan aurrerapausoak eman dira berdintasunaren arloan, baina oraindik asko dago emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna eraginkorra lortzeko. Berdintasun formala lortu da, legeriari dagokionez, baina oraindik asko falta da helburua lortzeko: soldata-arrakala, laneko sexu-jazarpenak, erantzunkidetasuna, eta abar.

Horregatik, berdintasun-planak beharrezko tresnak dira urratsak ematen jarraitzeko, berdintasun erreal eta eraginkor horretara gero eta gehiago hurbiltzeko. Eta horixe izan da plan honen helburua, esku-hartze publiko koordinatua, koherentea eta eraginkorra ahalbidetzea. Plan honi esker, zuzendaritzen eta saileko erakundeen artean modu erantzunkidean eta koordinatuan lan egin ahal izango dugu.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak 50 neurri hartzen ditu barnean, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna eta Emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzeko, otsailaren 18ko, 4/2005 Legearen eskakizunei nahiz hainbat esparrutako arauetan eta programetan jasotako konpromisoei lotuta daude.

Berdintasun-arloan esku hartzeko ardatzei dagokienez, planak proposatzen dituen gizarte-aldaketarako erronkak berdintasun arloko esku-hartze publikoa bideratzen duten hiru ardatz hauen inguruan egituratzen dira: emakumeen ahalduntzea; ekonomiak eta gizarte-antolaketa eraldatzea, eskubideak bermatzeko; eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitza.

«Diskriminazioak emakumeei beren oinarritzko giza eskubideez gozatzea galarazteaz gain, gizartearen hazkunde ekonomikoari eta, oro har, oparotasunari oztopatzen die».

Emakumearen aurkako diskriminazio mota guztiak ezabatzeko Konbentzioa.

Olatz Garamendi Landa

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua

# HITZAURREA

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren **Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako Plana** esparru-dokumentua da, eta XII. Legealdian sail honek berdintasunaren alorrean sustatuko dituen politiken gidalerroak biltzen ditu.

Dokumentu hau eginda, sailak Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna eta Emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen aginduari erantzuten dio. Horren harira, hauxe xedatzen du aipatutako legearen 15. artikulua:

15. artikulua.– Emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak

- ⇒ 1. – *“Eusko Jaurlaritzak plan orokor bat onartuko du, eta, plan horretan, esku-hartze ildoak eta gidalerroak jasoko dira, koordinatuta eta oro har, euskal botere publikoek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan izango dituzten jarduerak gidatzeko. Plan hori egiteko orduan, Eusko Jaurlaritzak parte hartzeko aukera eman behar die gainerako euskal administrazio publikoei, talde feministei eta emakume taldeei, beste gizarte-eragile batzuei eta, oro har, herritar guztiei. Halaber, erraztu behar du 3.1 artikulua azken tartekian aipatutako emakumeen interesak ordezkatzeko dituzten kolektiboak edo antolakundeak egotea.”*
- ⇒ 2. – *“Lehenengo paragrafoan aurreikusitako plan orokorraren esku-hartze ildo eta gidalerro horiek garatzerakoan, Eusko Jaurlaritzaren sail bakoitzak bere jarduketa-plan propioa egingo du legegintzaldi bakoitzean; plan horiek behar diren baliabide pertsonal, ekonomiko eta materialez hornituta egongo dira, benetan ezarriko direla bermatzeko. Sail bakoitzak zehaztuko du, nork bere ezaugarrien arabera eta efikazia-irizpideak kontuan hartuta, nola koordinatu bere organismo autonomoekin eta atxikitako edo lotutako erakunde publikoekin, plan horiek egiteko.”*

Plan orokor hori VII. Plana da, eta Gobernu Kontseiluak 2018ko ekainaren 18an onartu zuen, Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna eta Emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizimodurako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 15.1 artikulua betez.

## AURREKARIAK

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana diseinatu aurretik, sei plan gehiago egin ziren emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan. Legealdi bakoitzean plan bat egin da, EAEn indarrean zegoen Plan Orokorrarekin bat etorrira. Segidan, sailean berdintasunerako unitatea 2009an sortu zenetik egin diren planak zehaztuta daude:

LEGEGINTZALDIA	EAEko PLAN OROKORRA	SAILEKO PLANAK	INDARRALDIA
VIII	IV	Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Programa. Jaurlaritzaren Lehendakariordetza; Ogasun Eta Herri Administrazio Sailsa	2006-09
IX	V	Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Programa Justizia eta Herri Administrazio Sailsa	2010-2013
X	VI	Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Programa Herri Administrazio eta Justizia Sailsa	2014-2016
XI	VII	Gobernantza publiko eta autogobernu saileko emakumeen eta gizonen berdintasunerako plana.	2018-2021

## DOKUMENTUAREN EGITURA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana euskal herri-aginteen jarduera zuzentzeko dokumentua da, legegintzaldi honetan emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan aurrera egiteko. Alde horretatik, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari dagokio esku hartzeko estrategiak definitzea, berdintasun-politikak bere eskumenera esparruan gauzatzeko, dela zuzendaritzetan, dela atxikitako erakunde autonomo edota sozietate publikoetan.

Honako hauek dira Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasun Planaren edukiak:

- ⇒ Lehenik eta behin, Gobernu Programaren konpromisoak eta ekimenak VII. Planean eta sailaren berdintasun-planean berdintasun-arloan biltzen diren helburuei lotu zaizkie.
- ⇒ Bigarrenik, VII. Planaren helburuak zerrendatu dira.
- ⇒ Hirugarrenik, sailaren plangintza estrategikoa bildu da, helburu estrategikoak ere zehaztuta.
- ⇒ Laugarrenik, plana kudeatzeko sistema azaldu da.
- ⇒ Bosgarrenik, eranskin gisa txertatu dira honako dokumentu hauek: sailari atxikitako EJE (IZENPE) eta ITELAZPI sozietate publikoen berdintasunaren arloko planak.

## PRESTAKETA-PROZESUA

Plangintza hau egiteko oinarritzat hartu da: batetik, urtero egiten den Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren ebaluazioa; eta, bestetik, sailaren ibilbidea bera, berdintasun-politikak ezartzeko. Hori guztia kontuan hartu da jardun-estrategiak diseinatzeko. Horrez gain, saileko berdintasun plana lantzeko, parte hartzeko prozesu bat abian jarri da, bai indarrean dauden ekimenak ebaluatzeko, bai proposamen berriak jasotzeko. Prozesu hau STTaren bitartez (Sail barruko Talde Teknikoa) kudeatu da. Hau da, saileko zuzendaritzek baita sailari atxikitako erakundeek ere parte hartu dute prozesu horretan. Horrela, sailaren berdintasun-neurrien sustapenean parte hartu dute, beren erakundeetan bultzatzen dituztenez gain.

Hona hemen zer egin dugun prozesu horretan:

LANAREN FASEAK	
⇒	Sail barruko Talde Teknikoarekin bilerak, zuzendaritza bakoitzean
⇒	Erakunde autonomoekin eta atxikitako erakundeekin bilerak
⇒	Proposamen guztiak jaso eta planaren zirriborria prestatu
⇒	Saileko Talde Teknikoarekin egindako kontrastea (STT)
⇒	Zerbitzu Zuzendaritzako zuzendariarekin kontratatu
⇒	Zuzendaritza Kontseiluan legealdiko planaren zirriborria aurkeztu
⇒	Zirriborria Emakunderi eta Berdintasunerako Sailarteko Batzordeari bidali, Emakundek plana egin dezan.
⇒	Proposamenak txertatu, Emakunderen txostena jaso eta gero
⇒	Zuzendaritza Kontseiluak Legealdiko behin betiko Plana onartu.

## ESKUMENEN EGITURA

---

Jarraian, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailearen eskumen-eremuak azaldu dira eskema moduan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko jarduerak non txertatuko diren zehaztuta.



# 1 GOBERNU-PROGRAMA

Eusko [Jauriaritzaren XII. Legealdirako Gobernu Programak](#) 4 ardatz, 10 herri helburu, 25 jarduketara-erlo, 150 konpromiso eta 699 ekimen biltzen ditu. Helburu horien artean, «**Euskadi genero-indizirik altuena duten Europako 6 herrialdeen artean kokatzea**» dugu. Genero Berdintasunerako Europako Institutuak egindako [Europar Batasuneko Berdintasun Indizearen](#) metodologiari jarraituz, Eustaten datuen arabera, Euskal AEko Genero Berdintasunaren Indizea (GBI) 100etik 73,1 puntukoa izan da 2019an (eskuragarri dagoen azken urtea). 2010. eta 2019. urteen artean bost neurketa egin dira, eta Euskal AEko GBIren balioan ondoko ondoko aurrerapenak izan direla ikusi da: 2010ean 68,9 puntu izatetik 2019an 73,1 puntu izatera igaro da, hau da, 4,3 puntu hobetu da.

Jarraian, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari dagozkion konpromisoak eta ekinbideak xehatuko ditugu. Gobernu Programan zehaztuta daude. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen dituzten ekimenak nabarmendu ditugu: eskumenen arabera, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen bitartez; eta sailak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko egiten dituen ekimenak.

## GOBERNANTZA ETA AUTOGOBERNU SAILAREN KONPROMISOAK ETA EKIMENAK, XII. LEGEALDIRAKO

### 143 Erakunde arteko koordinazioa

**1. EKINBIDEA.** Politika estrategikoen koordinazioan sakontzea gainerako erakundeekin (foru aldundiak eta udalak), ezarritako koordinazio-mekanismoak eta organoak ezarri edo, hala badagokio, erakunde arteko lanerako eta lankidetzarako espazioak sortzea babestuz, gizarte gisa aurre egin behar diegun erronka handiak jorratzeko.

### 144 Lortutako autogobernuaren defentsa.

**1. EKINBIDEA.** Lortutako autogobernuaren defentsa zaintzea, bere garapena sustatzea eta Eusko Legebiltzarrak edo Jauriaritzak bere eskumen-eremua gauzatzuz onetsitako politika publikoetan sartzea eta horiek hustea, baldintzatzea edo murriztea eragiten duten jarduketak salatzea. Gure ustez, Konstituzioaren 156. artikuluan zerga- eta finantza-politikari buruz aurreikusitako koordinazio-eskumenetatik ondoriozta daitezkeen neurriek Euskal Ekonomia Ituna errespetatu behar dute eta dagozkien alde biko organoetan adostu behar dira. Hortaz, hori aplikatzeko edo gauzatzeko, alde biko topaketa-organoa edo Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoa elkartu behar da, denbora eta forma egokietan.

**2. EKINBIDEA.** Autogobernuaren defentsan eskuduna den sailak ofizios edo gainerako sailek eskatuta koordinatuko du Estatuko araudi-ekimenen konstituzio-legezketasunaren eta Gernikako Estatutuarekiko errespetuaren inguruko txostenen lanketa. Txosten horiek autogobernuaren defentsan eskuduna den sailak egingo ditu, zehazki, ukitutako sail sektorialarekin kontsultatu ostean. Euskal autogobernuaren urraketak antzematen direnean, gatazka judizialak saihesten dituzten prebentzio-konponbideak bilatzen saiatuko da, zehazki, dagokion "lankidetzaren" bidez. Era berean, lankidetzako alde biko



batzordearen aurrea negoziatzea lehenetsiko da, euskal autogobernua zaintzeko eta horren konstituzio-judizializazioa saihesteko xedearekin

**3. EKINBIDEA.** Lankidetzako prebentzio-neurriek emaitzarik ez badute, autogobernuaren defentsan eskuduna den sailak, ukitutako sail sektorialarekin kontsultatu ostean, Gobernu Kontseiluari aurkeztuko dizkio euskal autogobernuaren, Euskadiri esleitutako eskumenen eta Euskal Autonomia Erkidegoaren erakundeen antolaketaren defentsan oinarritzen diren mota guztietako konstituzio-prozesuak edo prozesu judizialak jartzeko proposamenak.

**4. EKINBIDEA.** Eusko Jaurlaritzak eragile gisa esku hartzen duen prozesuetan eta Estatuak EAEk ezarritako arauen eta egintzen aurka jarritako errekurtsoen ondoriozko prozesuetan, lankidetzako alde biko batzordearen aurrean autogobernuaren defentsan eskuduna den sailak negoziatzea lehenetsiko da, ukitutako sail sektorialaren laguntzarekin. Hori guztia euskal autogobernua ahalik eta baldintzarik onenetan mantentzeko eta konstituzio-judizializazioa saihesteko, baita gure eskumen-eremua txikitzeko efektuak dituen doktrina bat finkatzen duten autogobernuaren gaineko interpretazio hutsezko akatsak eragitearen arriskuak saihesteko ere.

#### 146 Transferitzeke dagoen autogobernua.

**1. EKINBIDEA.** Espainiako Gobernuarekin batera lan egitea, transferitu ahal diren eskumen, gai eta zerbitzuei buruzko negoziazioak gauzatzeko, Gobernu Kontseiluak 2017ko irailean babestutako eta Eusko Jaurlaritzaren Autogobernuaren Ponentziara bidalitako Euskal Autonomia Erkidegoari egin beharreko Transferentzien Eguneraketari buruzko 2017ko Txostenak jasotako terminoen barruan eta Espainiako Gobernuak formalki 2020ko otsailaren 20an bidalitako Eusko Jaurlaritzak eskatutako transferentziei buruzko balizko negoziazioetarako kronograma-proposamen orientagarriarekin bat eginez. Izan ere, jakin badakigu beharrezkoa dela horiek elkarren artean adostuta eguneratzea, batez ere, kontuan hartuta COVID-19aren pandemiaren eragina..

#### 147 Aurrera egitea bikoiztasunak saihesten dituen administrazio hurbilagoa, sinpleagoa eta eraginkorragoa lortzeko prozesuan

**1. EKINBIDEA.** Sektore Publikoaren Legea onestea, Eusko Jaurlaritzak erakundeen egituran duen paper koordinatzailea bermatuko duena eta erakunde-maila desberdinen arteko balizko bikoiztasunak saihesten dituzten lankidetzak- eta koordinazio-mekanismoak barne hartzen dituena.

**2. EKINBIDEA** Administrazioaren eta herritarren arteko harreman-eredua berriz diseinatzea, digitalizazioaren bultzadan eta sinplifikatzeko berritzearen filosofian oinarrituta. Zerbitzuak uneoro egon behar dira eskuragarri, edozein tokitik eta edozein gailuren bidez. Zerbitzuak sinplifikazioko eta aktibitateko ikuspegi batekin sortu eta diseinatu egingo dira eta herritarrei zuzenduko zaizkie, zehazki, hizkuntza sinplea erabiliz. Bide digitala sustatuko da, herritarrei arreta emateko leihatila bakarraren bidez, baita telefono mugikorren bidezko harremana ere.

#### 148 Administrazio irekiagoa eta gardena bultzatzea, kontuak denbora errealean ematen

**1. EKINBIDEA** "Herritarren parte-hartzerako eta gardentasunerako legea" onestea, administrazioaren herritarrekiko gardentasuna bermatzeko, herritarren parte-hartzea sustatzeko gai publikoetan eta gobernu-programa betez garatzen diren ekintzen eta ekimenen kontuak denbora errealean ematea ahalbidetzeko.

**2. EKINBIDEA** eharrezko araudiaren garapena bultzatzea politika publikoen eraikuntzan eta egikaritzapenean, administrazio publikoaren eta sindikatuen eta enpresa-antolakuntzen arteko etengabeko elkarriketa bultzatzeko.

**3. EKINBIDEA** Mundu digital honetan, datuak oso baliagarriak dira antolakuntza zein herritarrentzat. Datuen balioa ateratzeko eta hori herritarrei itzultzeko, datuen gobernantzako base irmoa sustatuko da. Base horrek hauxe ahalbidetuko du: adimen artifizialaren hedapena; politika publikoen ezarpena eta datuak trukatzeko eta berrerabiltzeko konfiantzazko ingurune seguruen ezarpena.

**4. EKINBIDEA** Datu irekien eta lotutako datuen estrategia indartzea. Euskadiko berrerabiltzaileen kolektiboak eta herritarrek eskatutako datu-multzoak identifikatzea eta datu horiek normalizatzea eta lotzea, erakunde arteko zerbitzu berriak garatuz.

**5. EKINBIDEA** Gobernu irekiko eta nazioarteko aitopenekeo estrategia sustatzea. Erreferentziazko nazioarteko antolakuntzarekiko, hau da, Gobernu Irekirako Aliantzarekiko (OGP) lankidetzaren irekiagoak, arduratsuak eta herritarrekiko sentiberak diren gobernuak sustatzeko mekanismoak garatu eta ebaluatzeko.

**6. EKINBIDEA** Herritarren parte-hartzea eta horien iritzien entzute aktiboa areagotzea eta adierazleen sistema berriz ere diseinatzea, kudeaketa publikoaren denbora errealeko informazio- eta ebaluazio-prozesu etengabe batean.

**149 Administrazio berritua eta digitala bultzatzea, finkatutako eta prestatutako giza baliabideekin.**

**1. EKINBIDEA.** “Euskal enplegu publikoaren lege” bat onestea, euskal administrazio publikoaren bitarteko kontratuen tasa altuak murrizten dituen, zehazki, bitarteko langileak finkatzeko prozesuen eta enplegu-eskaintza publiko berrien bidez, funtzionarioak berritzea eta horien belaunaldi-erleboia ahalbidetzeko.

**2. EKINBIDEA** Funtzio publikorako sarbide-sistemak eguneratzea eta berrikustea, gardenagoak eta arinagoak izan daitezen, erabateko bermearekin betez berdintasun, merezimendu eta gaitasuneko printzipioak.

**3. EKINBIDEA** Berrikuntza publikoa bultzatzea funtzionario-egitura horizontalagoen bidez, langile publikoek erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzea sustatzeko.

**4. EKINBIDEA** “Gobernu digitalaren” euskal estrategia abiaraztea, administrazioen arteko eta sektore pribatuarekiko elkarreragingarritasuna amaitu dugu eta herritarren karpeta bateratu bat sortu dugu.

**5. EKINBIDEA** Araudi- eta administrazio-prozesuen sinplifikazioan eta modernizazioan aurreratzea, herritarren eskariei arinago eta lasterrago erantzuteko eta araudiaren lanketa azkartzeko.

**6. EKINBIDEA** Administrazioaren eremuko adimen artifizialeko proiektu pilotu bat abian jartzea, hori izanik adimen artifizialeko euskal zentroaren aplikazio-arloetako bat. Horrela, teknologia berriak eta berrikuntza teknologikoa baliatuko ditugu, gobernuaren ekintza eta herritarrei ematen zaien zerbitzua hobetze aldera.

Bestalde, honako taula honetan zehaztu dira XII. Legealdiko Gobernu Programan berdintasuna sustatzeko bilduta dauden konpromisoak eta ekimenak. Horiek ez dira Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren eskumen zuzena, baina Gobernu osoa zeharkatzen duten gaiak dira. Gure planaren bidez, horiek betetzen lagunduko dugu, eta helburu estrategiko hau ere betetzen lagunduko dugu: «**Euskadi genero-indizirik altuena duten Europako 6 herrialdeen artean kokatzea**»

**EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA SUSTATZEKO GOBERNU-PROGRAMAKO KONPROMISOAK ETA EKIMENAK**

**93 Indarkeria matxista desagerraraztea eta emakumezkoen indarkeriarik gabeko gizarte berdinzale bat eraikitzea.**

▶ **4. ekinbidea.** Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak identifikatzea sustatzea, gero emakume horiekin esku hartzeko tresna berriak txertatuz.

**94 Soldata-arrailearen aurkako txoke-planaren aplikazioa sustatzea**

- ▶ **1. ekinbidea.** Berdintasun-planak bermatzea 50 langile baino gehiagoko enpresetan eta, 50 langile baino gutxiagoko enpresetan, berdintasun-planen negoziazioa sustatzea, betiere Gizarte Elkarrikerarako Mahaian lortutako akordioei jarraiki.
- ▶ **3. ekinbidea.** Ordu-tegi-arrazionalizazioarako itun sozial eta politiko bat bultzatzea.
- ▶ **4. ekinbidea.** Bizitza pertsonala, lana eta familia bateratzea ahalbidetuko duen enpresa-kultura berri bat abiaraztea sustatzea.
- ▶ **6. ekinbidea.** Emakumeen laneratzea erraztea etorkizunean eskari handiagoa izango duten lanbideetan.
- ▶ **7. ekinbidea.** Zaintzak berdintasun-politiken erdigunean jartzea, gero eta erantzunkideagoa den gizarte-antolakuntza batean aurrera egiteko eta “kontziliaziotik erantzunkidetasunerako” trantsizioa egiteko.

95

#### Balio-aldaketa eta emakume eta nesken ahalbidetzea.

- ▶ **2. ekinbidea.** Emakumeen elkarre-mugimenduaren eta mundu feministaren ekimenak sustatzea ahalduzte- proiektuetan eta balio-aldaketako proiektuetan.
- ▶ **3. ekinbidea.** Aurrera egitea intersektionalitatean, emakume guztien premia desberdinei hobeto erantzuteko.
- ▶ **4. ekinbidea.** Gizonduz Programa indartzea, gizonaen benetako inplikazioa lortzeko berdintasunaren aldeko borrokan.
- ▶ **5. ekinbidea.** Emakumeen laneratzea sustatzea, horien autonomia ekonomikoa bermatze aldera, bereziki, gizonaen egin izan dituzten lanetan.

Horrenbestez, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planak Gobernu Planarekin lerrotatuta egon behar du, eta sailaren konpromisoak eta ekimenak lortzen lagundu behar du, baita bertako berdintasuneko neurri espezifikoak betetzen ere.

## 2 EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO VII. PLANA


[Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plan](#)ak modu koordinatuan eta orokorrean jasotzen ditu euskal agintari publikoek 2018-2021 aldirian berdintasunaren alorrean egiten duten jardunean esku hartzeko lerroak eta irizpideak; hori dela eta, [XII. Legealdirako Gobernu Programarekin](#) lerrotatuta dago. Plana Emakumeen Euskal Erakundeak prestatu du, erakunde publiko eta gizarte-eragile guztiekin parte hartuta; era berean, plana prestatzeko oinarritzkoa izan da EAEko emakumeen eta feministen elkarten eta berdintasun-teknikarien partaidetza ere.

Berdintasunerako VII. Planak [Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna lortzeko eta emakumeen aukako indarkeria matxistarik gabeko bizimodurako, otsailaren 18ko, 4/2005 Legearen](#) 15. artikulua ezarritako legezko aginduari erantzuten dio. Era berean, legeak xedatzen du, jarraibide eta gidalerro horiek garatzean, **Eusko Jaurlaritzako sailek berdintasunaren arloan jarduteko planak eta programak egin eta onetsiko beharko dituztela.**

Alde horretatik, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren **xedea** botere publikoak gidatzea da, bizitzaren arlo guztietan emakumeen eta emetasunaren mendekotasuna mantentzen eta justifikatzen duten balioak aldatzeko; balio horiek gizonak ere mugatzen dituzte, nahiz eta oraindik botere-egoeran egon, patriarkatuak haien bizitzak ere baldintzatzen baititu, unibertsala da eta.

Balio aldaketa hori ezinbestekoa da giza garapen jasangarrirako, eta berekin dakar hainbat balio berri sortzea eta finkatzea, androzentrismoaz, sexismoaz eta matxismoaz zeharkatuta egongo ez direnak; aitzitik, emakumeen eta gizonen berdintasuna, emakumeen giza eskubideak eta herritarren sustapena garatzea eta txertatzea ahalbidetzen duten printzipio filosofiko, etiko eta politikoek zeharkatuko dituzte.

VII. Planean ezarritako **printzipioek** adierazten dute zein diren plan horrek inspiratutako eta orientatutako helburuen eta jardueren ikuspegi estrategikoak; **bermeek**, berriz, haien operatibitatea eta inpaktua ziurtatzea bilatzen dute.



Horretarako, batetik, **Gobernu Ona** sustatzeko 5 programa ezartzen dira: legearen aginduak jaso eta garatu egiten dituzte, eta Administrazio Publiko osoari eragiten diote; eta, bestetik, berdintasunaren arloan **esku hartzeko ardatzak** definitzen dira, gizartea bidezkoagoa eta berdinzaleagoa izan dadin.



Segidan, VII. Planaren arabera, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren eskumenekoak diren **programak eta helburuak** azaldu dira.

GOBERNU ONA SUSTATZEKO PROGRAMAK ETA NEURRIAK		
I. PROGRAMA: KONPROMISO POLITIKOA	B.G.1 Berdintasunaren gaiari buruzko berriazko araudia onartzea eta garatzea	<b>BG1.1</b> Berdintasunerako berriazko araudia duten erakunde publikoen kopurua handitzea.
	<b>B.G.2. Berdintasun-politikak garatzeko aurrekontua handitzea.</b>	<b>BG2.1</b> Berdintasunerako berriazko aurrekontuak dituzten erakunde publikoen kopurua handitzea. <b>BG2.2</b> Berdintasunera bideratutako aurrekontua handitu duten erakunde publikoen kopurua handitzea.
	B.G.3. Berdintasunerako plangintza eta horren ebaluazioa areagotzea eta hobetzea.	<b>BG3.2</b> Berdintasunerako bameko planak dituzten erakunde publikoen kopurua handitzea. <b>BG3.3</b> Partaidetza nagusia kapital publikoarena duten enpresak, berdintasunerako plan bat dutenak, gehitzea. <b>BG3.4</b> Berdintasunerako plangintza-prozesuak hobetzea. <b>BG3.5</b> Erakunde publikoek egindako berdintasun-planen ezarpen-, jarraipen- eta ebaluazio-prozesuak hobetzea. <b>BG3.6</b> Berdintasunaren arloko kudeaketa publikoan kontuak ematea sustatzea, politiken ebaluazioaren emaitzetatik abiatuta.
	<b>B.G.4. Berdintasunerako unitate administratiboak sortzea eta indartzea.</b>	<b>BG4.1</b> Berdintasunean trebatutako teknikariak dituen unitate espezializatua duten sailen, erakunde autonomoen eta Eusko Jauriaritza atxikitako erakunde publikoen kopurua handitzea. <b>BG4.2</b> Berdintasunean trebatutako teknikariak dituen unitate espezializatua duten sailen, erakunde autonomoen eta Eusko Jauriaritza atxikitako erakunde publikoen kopurua handitzea. <b>BG4.3</b> Berdintasunean trebatutako teknikariak dituen unitate espezializatua duten sailen, erakunde autonomoen eta Eusko Jauriaritza atxikitako erakunde publikoen kopurua handitzea. <b>BG4.4</b> Berdintasuneko teknikarien egoera eta maila profesionala hobetzea. <b>BG4.5</b> Posizio organiko egokia eta beharrezko aurrekontuko zuzkidura duten berdintasunerako unitateen kopurua handitzea.
II. PROGRAMA: BERDINTASUNA SUSTATZEKO TREBAKUNTZA	<b>BG.5 Erakunde publikoetako langile guztiak prestatzea, baita politikariak ere.</b>	<b>BG5.1</b> Beren prestakuntza-planetan berdintasunerako prestakuntza txertatzen duten erakunde publikoen kopurua handitzea. <b>BG5.2</b> Jarduera politiko eta teknikora egokitutako berdintasunerako prestakuntza-ibilbideak diseinatzen dituzten erakunde publikoen kopurua handitzea. <b>BG5.3</b> Berdintasunera berriaz bideratzen ez diren baina genero-ikuspegia txertatzen duten prestakuntza-jardueren ehunekoa handitzea.
III. PROGRAMA: GENERO- IKUSPEGIA LAN- PROZEDURETAN	BG.6. Estatistika eta azterlanetan genero-ikuspegia txertatzea.	<b>BG6.1</b> Azterlan eta estatistiketan sexu aldagaia zeharka sartzen duten euskal erakunde publikoen kopurua handitzea. <b>BG6.2</b> Azterlan eta estatistiketan sexu aldagaia zeharka sartzen duten euskal erakunde publikoen kopurua handitzea. <b>BG6.3</b> Emakumearen egoerari buruz eta/edo berdintasunaren arloan ikuspegi intersektionala duten berriazko azterlanen kopurua handitzea.

	<b>BG.7</b> Enplegu publikora sartu eta bertan mailaz igotzeko hautaketa-prozesuetan berdintasunarekin lotutako edukiak txertatzea.	<b>BG7.1</b> EAEko berdintasuneko teknikariak hautatzeko prozesuak, berdintasun arloko berriazko prestakuntza eskatzen dutenak: ehunekoa handitzea. <b>BG7.2</b> Emakumeen ordezkariak txikia denean berdinketa hausteko emakumeen aldeko klausula bat duten enplegu publikoak lortzeko, hornitzeko eta sustatzeko hautaketa-prozesuen ehunekoa handitzea. <b>BG7.3</b> Beren gai-zerrendan berdintasunari buruzko edukiak dituzten enplegu publikoak lortzeko eta sustatzeko hautaketa-prozesuen ehunekoa handitzea.
	<b>BG.8</b> Komunikazioan berdintasuna txertatzea.	<b>BG8.1</b> Hizkera ez-sexista erabiltzen duten EAEko aldizkari ofizialetan argitaratutako dokumentuen ehunekoa handitzea. <b>BG8.2</b> Hizkuntzaren eta gainerako komunikazio-elementuen erabilera ez-sexista egiten duten euskal herri-administrazioen webguneetako edukien kopurua handitzea. <b>BG8.3</b> Euskal erakunde publikoek erabiltzen eta berdintasunaren arloko lorpenak agerian jartzen dituzten komunikazio-euskarrien (memoriak, webguneak...) erabilera handitzea. <b>BG8.4</b> Erakunde publikoek onartutako berdintasunaren arloko oinarriko dokumentuak guztientzako eskuragarri jartzea.
	<b>BG.9</b> Araudian berdintasunaren printzipioa txertatzea.	<b>BG9.1</b> Generoaren araberako eraginaren ebaluazioak egiten dituzten foru- eta toki-administrazioen kopurua handitzea. <b>BG9.2</b> Generoaren araberako eraginari buruzko alde zuzeneko ebaluazioak egiten dituzten erakunde publikoak handitzea. <b>BG9.3</b> Berdintasuna sustatzeko neurriak dituzten arauen ehunekoa handitzea.
	<b>BG. 10</b> Aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzea.	<b>BG10.1</b> Aurrekontuak berdintasunean duen eraginaren aurretiko balorazioa egiten duten herri-administrazioen kopurua handitzea. <b>BG10.2</b> Genero-ikuspegia aurrekontuetan txertatzeko jarduerak egiten ari diren herri-administrazioen kopurua handitzea.
	<b>BG. 11</b> Genero-ikuspegia txertatzea sektorekako eta zeharkako planetan.	<b>BG11.1</b> Beren diseinu-, kudeaketa- eta ebaluazio-prozesuetan genero-ikuspegia kontuan hartzen duten sektorekako eta zeharkako planen ehunekoa handitzea. <b>BG11.2</b> Berdintasunerako unitate edo eragile batek osatu eta ezarri dituen sektorekako edo zeharkako planen kopurua handitzea.
	<b>BG.12</b> Kontratu, diru-laguntza eta hitzarmenetan berdintasunerako klausulak sartzea.	<b>BG12.1</b> Kontratu eta/edo diru-laguntzetan berdintasunerako klausulak txertatzen dituzten eta betetzen diren ala ez kontrolatzen duten erakunde publikoen kopurua handitzea. <b>BG12.2</b> Berdintasunerako klausulak txertatzen dituzten kontratuen ehunekoa handitzea. <b>BG12.3</b> Berdintasunerako klausulak txertatzen dituzten diru-laguntzen, hitzarmenen eta beken ehunekoa handitzea.
<b>IV. PROGRAMA: KOORDINAZIOA ETA LANKIDETZA</b>	<b>BG.13</b> Berdintasunerako koordinazioa eta elkarlana indartzea.	<b>BG13.3</b> Berdintasunerako sailarteko koordinazio-egitura duten Eusko Jaurlaritzako sailen eta horretan parte hartzen duten arloen kopurua handitzea. <b>BG13.4</b> Nazioarteko lankidetzako guneak ugaritzea.
<b>V. PROGRAMA: PARTAIDETZA ETA ERAGINA</b>	<b>BG. 14</b> Emakumeek eta gizonen zuzendaritza-organoen pluripersonaletan ordezkariak orekatu izatea bermatzea.	<b>BG14.1</b> Emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatu duten kide anitzeko zuzendaritza-organoen ehunekoa handitzea. <b>BG14.2</b> Emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatu duten epaimahaien edo antzeko organoen ehunekoa handitzea. <b>BG14.3</b> Emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatu duten hautaketa-epaimahaien ehunekoa handitzea.
	<b>BG. 15</b> Kontsultarako eta parte hartzeko guneetan genero-ikuspegia sartzea.	<b>BG15.1</b> Berdintasunerako herritarren partaidetzako batzorde edo organo bat duten herri-erakundeak gehitzea. <b>BG15.2</b> Beren osieran eta beren funtzio eta helburuen artean berdintasuna txertatzen duten herritarren partaidetzarako batzorde, organo eta plataformen kopurua handitzea. <b>BG15.3</b> Emakumeek politika publikoetan parte hartzeko batzordeen, organoen, plataformen eta beste modu berrien eragina handitzea.

Esku hartzeko ardatzetan proposatutako ekimenen artean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planak Eusko Jaurlaritzako zer sailek gauza ditzaketan aipatzen du, euren eskumen-esparrua aintzat hartuta. Horrenbestez, honako taula honetan jaso dugu Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak zer programatan eta helburutan esku hartu ahal duen: programa edo helburu horietan erakunde guztiak parte hartzen dutelako; edo sailak, bere eskumenez baliatuta, lagundu ahal baitu helburu horiek lortzen, partzialki bada ere.

## 1. ARDATZA. EMAKUMEAH AHALDUNTZEA

<b>1. PROGRAMA: EMAKUMEEH AHALDUNTZE PERTSONAL ETA KOLEKTIBORAKO LAGUNTZA.</b>	<p>1.1 Giza garapen jasangarrirako emakumeek eta feminismoak duten zereginaren onarpena sustatzea.</p>	<p>1.1.1 Berdintasunaren arloko gizarte-aurrerapenean emakumeek eta feminismoak egindako ekarpenen agerikotasuna eta onarpena handitzea.</p> <p>1.1.2 Gehien feminizatutako bizitzako eremuen gizarte-balioespena handitzea.</p> <p>1.1.3 Emakumeek eta feminismoak bizitzaren eremu guztietan egiten dituzten lorpenak eta ekarpenak gizarte-komunikabideetan hedatzen laguntzen duten programen eta edukien kopurua handitzea.</p> <p>1.1.4 Emakumeek eta feminismoak gizartean eta historian egindako ekarpenak beren hezkuntza-proiektuen edukietan txertatzen dituzten ikastetxeen kopurua handitzea.</p>
	<p>1.2 Emakumeen genero-kontzientzia, autoestimua eta autonomia garatzeko laguntza ematea.</p>	<p>1.2.1 Genero-desberdinkeriek eta -diskriminazioek beren bizitzetan duten eraginaz jabetzen diren eta trebakuntza-prozesuen bidez beren autoestimuan eta autonomian aldaketak bultzatzen dituzten emakumeen kopurua handitzea.</p> <p>1.2.2 Beren autonomia ekonomikoak norbere erabakiak hartzean duen eragina aintzat hartzen duten emakumeen kopurua handitzea.</p>
	<p>1.3 Autozainketa eta osasuna sustatzea adin guztietako emakumeengan.</p>	<p>1.3.1 Beren burua zaintzeko ohitura duten neskatilen, emakume gazte eta helduen kopurua handitzea (aipatu ohiturak: behar pertsonaletara eta bizitza estilora egokitutako elikadura orekatua izatea, jarduketako fisikozko pozgarria egitea, eta arrisku-jarrerak murriztea, besteak beste).</p> <p>1.3.3 Bizitza osasuntsua izateko emakumeen itzarpena handitzea.</p>
	<p>1.4 Baliabideak hobetzea, halako moldez non emakume guztien askotariko egoerek, esperientziek eta premiek beren aldaketan eragin dezaten, bereziki desberdinkeria handienak dituzten baliabideetan.</p>	<p>1.4.1 Generoaren arabera eten digitalak murriztea, teknologia berriak erabiltzen dituzten emakumeen kopurua handituz; bereziki, nagusien artean eta horretarako zailtasunak dituzten taldeen artean.</p> <p>1.4.2 Garraio eta ekipamendu publikoaren estaldurarekin pozik dauden emakumeen kopurua handitzea, bereziki landa-ingurunean, talde- eta behar-aniztasuna aintzat hartuta.</p> <p>1.4.3 Osasun-arreta hobetzea, esku-hartzean genero-ikuspegia txertatuz.</p>
<b>2. PROGRAMA: EMAKUMEEH AHALDUNTZE SOZIAL ETA POLITIKORAKO LAGUNTZA.</b>	<p>2.1. Gizarte- eta herri-mugimenduetatik berdintasuna sustatzea.</p>	<p>2.1.2 Egitarauetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko helburuak dituzten erakunde sozialen kopurua handitzea.</p> <p>2.1.3 Munduan emakumeen eta gizonen eskubide berdintasuna eta, bereziki, emakume errefuxiatuen eta migratuen eskubideak sustatzen dituzten emakume-elkarteen eta gizarte-erakundeen kopurua handitzea.</p>
	<p>2.2. Emakumeek gizartean parte har dezaten sustatzea, eremu eta guneez guztietan.</p>	<p>2.2.3 Gizarte-, sindikatu-, enpresa- eta politika-erakundeetan parte hartzen duten emakumeen kopurua handitzea.</p> <p>2.2.4 Gizarte- eta politika-arloan parte hartzen duten emakumeen kopurua handitzea, parte hartzeko formula eta/edo guneez bidez.</p>
	<p>2.3. Erabaki- eta zuzendaritza-eremuetan emakumeen presentzia eta eragina handitzea.</p>	<p>2.3.1 Emakumeen presentzia indartzea ordezkaritza eta/edo arduraren politikako postuetan.</p> <p>2.3.3 Elkarte-mugimenduko, irabazi asmorik gabeko erakundeetako –kulturararen, kirolaren eta aisialdiaren arlokoak bane-, erakunde politikoetako, sindikatuetako eta enpresa-erakundeetako erabaki postuetan eta guneeetan dauden emakumeen kopurua handitzea.</p> <p>2.3.4 Erabakiak hartzeko postuetan emakumeen eragina handitzera bideratutako babes- eta trebakuntza-programak ugartzea.</p>

## II. ARDATZA: GIZARTE ANTOLAKETA ETA EKONOMIAK ERALDATZEA, ESKUBIDEAK BERMATZEKO

<b>3. PROGRAMA: BERDINTASUNA GIZARTEA ETA EKONOMIA ERALDATZEKO BEHARREZKO BALIOA DELA AITORTZEA</b>	<p>3.1. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna gizarte-balioa dela onartzeko laguntza ematea</p>	<p>3.1.1 Berdintasuna eta gizarte-aurrerapena lotzen dituzten pertsonen kopurua handitzea.</p> <p>3.1.2 Emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeria gizarte-arazo garrantzitsutzat hartzen duten pertsonen kopurua handitzea.</p> <p>3.1.3 Emakumei eta gizoni bizitzako hainbat arlotan rol eta estereotipo bereziak esleitzen dizkieten ume, gazte eta helduen kopurua gutxitzea.</p> <p>3.1.4 Berdintasuna gizarte-balio modura sustatzearekin konpromisoa duten komunikabideen kopurua handitzea.</p> <p>3.1.5 Gizarte-komunikabideetan neskatoen, mutikoen, gazteen eta helduen presentzia orekatua eta aniztasuneko eta estereotipo sexistarik gabeko irudia sustatzen duten programen eta edukien kopurua handitzea bizitza sozialeko arlo guztietan.</p>
	<p>3.3. Antolaketaren eta enpresaren kultura berdintasunaren alde kokatzea.</p>	<p>3.3.1 Kultura eta enpresa-praktikak berdintasunerantz aldatzeko ikuspegia txertatzen duten berdintasun-planak dituzten erakunde publiko, gizarte-agente, enpresa eta erakunde pribatuen kopurua handitzea.</p> <p>3.3.2 Genero-ikuspegia duten kudeaketa aurreratuko sistemak txertatzen dituzten erakunde publiko, gizarte-agente, enpresa eta erakunde pribatuen kopurua handitzea.</p> <p>3.3.3 Berdintasunera bideratutako aldaketarako gogoeta- eta eragin-guneetan parte hartzen duten erakundeen eta enpresen kopurua handitzea.</p>
<b>4. PROGRAMA: EMAKUMEEH AUTONOMIA EKONOMIKOA.</b>	<p>4.1. Lanpostu gehiago eta hobeak sortzea.</p>	<p>4.1.1 Emakumeen jarduera- eta okupazio-tasa handitzea, kalitatezko lanpostuetan parte hartuz.</p> <p>4.1.6 Generoen arteko desoreka murriztea emakumeek eta gizonen lan ordaindurako eta prestakuntzarako ematen duten denboran, osoko lan zama handitu gabe.</p> <p>4.1.7 Emakumeen eta gizonen batez besteko urteko soldata gordinen arteko aldea txikitzea, batez ere alde handiena duten sektoreetan.</p> <p>4.1.8 Emakumeen eta gizonen pentsioen arteko alde ekonomikoa murriztea.</p> <p>4.1.9 Lantokietan sustapen profesionala izaten duten emakumeen ehunekoa handitzea, jakinarazitako prozesu gardenen bidez.</p>

5. PROGRAMA: ZAINKETA EKONOMIA FEMINISTA.	5.1. Sozialki onartzea zaintza-lanak ezinbesteko baldintza direla bizitzaren jasagarritasunerako.	<p>5.1.1 Zainketa-lanak naturalki emakumeen ardura direla ukatzen duten eta horiek gizarte-premia bat direla eta horiek hornitzeko gizonak, erakundeak, enpresak eta erakunde publikoak eta gizarte zibila inplikatzeko beharrezkoa dela ulertzen duten gazteen eta helduen kopurua handitzea.</p> <p>5.1.2 Eredu maskulino tradizionala zalantzan jartzen duten eta berdintasunarekin koherenteak diren eta zainketa-lanekiko konpromisoa duten jarrera eta portaerak dituzten gizon gazte eta helduen kopurua handitzea.</p> <p>5.1.3 Gaur egun zainketarako dagoen arreta-eredua hazten ari den zainketen askotariko eskarira egokitzea aztertzea, erantzuna hobetzeko xedez, erantzunkidetasuneko eta zainketa-lanen onarpen sozial eta ekonomikoko ikuspegi batetik.</p> <p>5.1.4 Eztabaida publikoa sustatzea, zertarako eta, gaur egungo eredu ekonomikoaren bidez, bizitzaren jasagarritasunean oinarritutako garapen-eredu bat bultzatzeko.</p>
	5.3. Zaintza-lanen antolaketa sozial berri bat babestea, horien gaineko ardurak birbanatzeko.	<p>5.3.1 Generoen arteko desoreka murriztea emakumeek eta gizonak ordaindu gabeko zainketa-lanetan ematen duten denboran.</p> <p>5.3.2 Haur eta gazteek zainketa-lanak egiten ematen duten denbora handitzea, mutilei arreta berezia jarri.</p> <p>5.3.3 Bateratze erantzunkideko neurriei heltzen dieten gizonen kopurua handitzea.</p> <p>5.3.4 Bateratze-neurriei heltzeko gizonen eta emakumeek hautematen duten zailtasun-maila murriztea.</p> <p>5.3.5 Amatasuneko eta aitatasuneko baimenak parekatzeko aukera sustatzea, berdinak eta besterenezinak izan daitezen.</p> <p>5.3.7 Administrazio eta enpresa publikoek hartutako bateratze erantzunkideko neurrien kopurua handitzea.</p> <p>5.3.9 Herritarrei zuzendutako zerbitzu publikoen ordutegi-malgutasuna handitzea.</p> <p>5.3.10 Bateratze erantzunkidea eta pertsonen autonomia erraztuko duten hirigintza-plangintzako eta etxebizitzaren, gune publikoen eta garraio-bide jasagarrien diseinuko irizpideak aplikatzea.</p>

### III. ARDATZA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARIK GABEKO BIZITZAK

6. PROGRAMA: SENTSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA.	6.1. Indarkeria estrukturala eta kulturala murriztea.	<p>6.1.1 Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde dauden eta hori sustatzen duten pertsonak gero eta gehiago izatea, batik bat adingabeez arduratzen direnak, edo adingabeentzako eredu direnak.</p> <p>6.1.2 Pertsonak euren sexuaren arabera maila handiagokoak edo txikiagokoak direla adierazten duen irudi eta eduki mediatiko oro kentzea, baita pertsonak sexu-objektu huts gisa aurkezten dituztenak edota emakumeen aurkako indarkeria justifikatzen, hutsaltzen edota bultzatzen dutenak ere, hedabideetan agertzearen ondorioz berriz biktimizatzea saihestuz.</p> <p>6.1.3 Emakumeen kontrako indarkeriaren informazio-trataera hobetzea, genero-desberdintasuna indarkeria sortzen duen elementu gisa ikus eta aurkez dadin, eta emakumeak borrokaren eragile aktibo gisa.</p> <p>6.1.4 Desberdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren arteko lotura ikusarazten duten programetan eta jardueretan parte hartzen duten edo hura prebenitzeko ahaleginak egiten dituzten eta gatazkak indarkeriarik gabe konpontzea sustatzen duten pertsonen, batez ere mutilen eta gizonen, kopurua areagotzea.</p> <p>6.1.5 Emakumeen aurkako indarkeria-motei eta horiek desberdinkeriarekin duten harremanari buruzko gizarte-pertzepzioa areagotzea, batik bat indarkeriaren modu zorrotz eta ezkutukoenei buruzkoa.</p>
7. PROGRAMA: KALTEA DETEKTATZEA, ARTATZEA ETA KONPONTZEA.	7.2. Biktimei arreta integrala bermatzea, ahalduztearen ikuspegitik, esku-hartze horretan nazioarteko estandarrekin bat eginez.	<p>7.2.3 Beren lantokian sexu-jazarpenaren eta sexuagatiko jazarpenaren aurkako prebentzio- eta laguntza-protokoloen estaldura duten pertsonen kopurua areagotzea.</p>



### 3.1. DIAGNOSTIKOAREN DATU GARRANTZITSUAK

#### 3.1.1. GOBERNU ONAREN ONDORIOAK

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren gobernu on baterako konpromiso-mailaren diagnostikoa egiterakoan, adierazle nagusiak aztertu dira Gobernu Onaren neurri bakoitzerako:

#### 1. Programa: Konpromiso politikoa

Urte hauetan, lehentasunetako bat izan da genero-ikuspegia sailaren prozedura guztietan txertatzeko bidean aurrera egitea. Horretarako, beharrezkoa da Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Berdintasunerako Unitate Administratiboa finkatzea (BUA), erreferente bihur dadin haren barruan. Horregatik, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila BUA sendotzen ari da; 2018an, berdintasun-teknikari lanpostu bat sortu zen Lan Harremanen Zuzendaritzan, Administrazio eta haren erakunde autonomoetako emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak bultzatzeko, eta 2021ean, berriz, berdintasun lanpostu berri bat sortu zen Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (IVAP) barruan. Hori dela eta, Gobernantza Saileko BUA sendotu da, berdintasun-teknikarien hiru lanpostuekin: Zerbitzu Zuzendaritzan, Lan Harremanen Zuzendaritzan eta IVAPen.

2022an, 7.000 euroko aurrekontuari eusteko proposamenari eutsi zaio, saileko prestakuntza-ekintzak planifikatzeko; 15.000 euroko aurrekontuari, sailean berdintasun-politikak sustatzeko; bai eta 43.000 euroko aurrekontuari ere, Administrazio Orokorreko berdintasun-plana ezartzeko. 2022ko jardunerako aurrekontuari dagokionez, 2017an unitaterako partida propioarekin hasitako bideari jarraitu zaio.

Sailaren berdintasun-planaz gain, 2017an, Lan Harremanen Zuzendaritzatik bultzatuta, Administrazio Orokorren I. Plana egin zen, 2021era arte indarrean egon dena. 2022an plan horren ebaluazioa eta Administrazio Publikoan emakume eta gizonen egoeraren diagnostikoa egin da. Urte honetan ere EAeko Administrazio Orokorreko eta erakunde autonomoetako Berdintasunerako II. Plana landuko da.

Bestalde, 2020an Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena gertatzen den kasuetan jarduteko prozedura arautzeko

protokoloaren lanketari ekin zitzaion. Agindua, 2021eko irailaren 1ean argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian. Halaber, 2022. urtean protokolo hau aktibatu behar duten alderdi guztiekin prestakuntza egin da: batzorde ikertzailea zein aholkulari konfidentziala osatuko duten langileekin, hain zuzen ere. Sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena gertatzen den kasuetan jarduteko prozedura arautzeko protokoloa langileen artean zabaltzeko sentsibilizazio kanpainak ere antolatzeko aurreikusita dago.

Bestalde, EJIE, IZENPE eta ITELAZPI erakundeek berdintasun-arloko politikak garatu dituzte X. legealditik, otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 40. artikulua betetzeko. Horrez gain, aurrera egin dute sailaren plangintzaren eta Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako VII. Planaren helburuak eta neurriak txertatzen. Gaur egun, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren erakunde publiko bakoitzak bere berdintasun plana dauka indarrean: EJIEk Berdintasunaren arloko V. jarduera-plana (2021-2023), ITELAZPIk Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako III. Plana (2019-2023), eta IZENPEk Emakumeen eta gizonen berdintasunerako III. Plana Izenpen S.A (2021-2024).

## 2. Programa: Berdintasunerako gaikuntza

Azken urteotan, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak zenbait prestakuntza-ekintza egin ditu berdintasun-arloan. Horretarako, erreferentziatzat hartu da Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko langileentzako berdintasun-arloko prestakuntza-plana (2019-2021), bai eta IVAPek egindako berdintasun prestakuntza ere.

Ondorioztatu da, oro har, gizon gutxiago joaten dela prestakuntza orokorrera (langileen sexuen arabera banaketari lotuta); eta berdintasun-arloko prestakuntza-jardueretara are gutxiago joaten direla, are gehiago, kontuan hartuta berdintasun zein euskara arloan dagoen malgutasunarekin ikastaro kopuruari dagokionez.

⇒ Emakundek politikariei zuzendutako ikastaroan: berdintasuna gizonekin politikagintzan lantzeko, 2018-2019 bitartean Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko kargudun batek eman zuen izena eta 2021ean bostek eman zuten izena.

⇒ IVAPeko ikastaroei dagokienez hauek dira urte hauetan zehar langileek egin dituztenak:

Uso igualitario del lenguaje en nuestra comunicación.

Curso básico de formación sobre igualdad de mujeres y hombres en proyectos.

Pasos hacia una cultura igualitaria en la administración general.

Conceptos básicos sobre igualdad de mujeres y hombres.

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren inguruko oinarritzko kontzeptuak.

Euskararen erabilera ez sexista.

Oinarrizko ikastaroa: emakumeen eta gizonen berdintasuna proiektuetan.

Violencia y género.

Masculinidades hombres e igualdad: retos y resistencias.

Kopuruei dagokienez:

	♀	♂	
2018	17	10	27
2019	14	1	15
2020	28	5	33
2021	17	10	27
	76	26	102

⇒ Gobernantza Sailaren Berdintasun Unitateak hainbat ikastaro antolatu ditu:

Introducción a las violencias de género.

Formación al personal que toma parte en el protocolo de acoso sexual y por razón de sexo.

901/2020 eta 902/2020 Errege Dekretuei buruzko 3 orduko prestakuntza-saioa, Berdintasun Batzorde Iraunkorreko kideei zuzenduta. Prestakuntza hau sindikatuetak bi pertsona gehiagori parte hartzeko aukera eman zitzaien, baita Lan eta Enplegu Sailari ere. Lan eta Enplegu Saileko Aholkularitza Juridikoko bi kide eta berdintasun-teknikaria ere bertaratu ziren.

	♀	♂	
2020	61	9	70
2021	11	7	18
	72	16	88

⇒ Erakunde publikoek ere berdintasun ikastaroak antolatu dituzte:

ITELAZPI:

Jornadas de igualdad.

Berdintasuna: diagnostikoa eta plana.

Berdintasun protokoloa.

Jornada avances en salud laboral y condiciones de trabajo con perspectiva de género.

	♀	♂	
2018	6	11	17
2019	6	12	18
2020	5	10	15
2021		3	3
	17	36	53

EJIE:

Jornadas sobre el protocolo de acoso.

Formación en Igualdad de oportunidades: aplicación práctica en el ámbito jurídico.

Formación en Igualdad para la nueva Comisión de Igualdad de EJIE.

Formación en materia de acoso sexual, acoso por razón de sexo, acoso moral y resolución de conflictos para la Asesoría Confidencial de EJIE.

Formación online en los Protocolos de Acoso sexual y moral y Protocolo de Resolución de Conflictos.

Guía de comunicación con perspectiva de género.

Formación en Sensibilización en Igualdad de Género.

Formación especializada 2020 para la Asesoría Confidencial de EJIE.

Un acercamiento al análisis de la Estadística Oficial desde la perspectiva de género.

Formación de la asesoría confidencial.

Formación liderazgo con perspectiva de género.

Formación para la igualdad 2021 Uso no sexista del lenguaje.

Taller doble presencia y equilibrio vida personal y familiar.

	♀	♂	
--	---	---	--

2018		1	1
2019	84	107	191
2020	76	77	153
2021	94	126	220
	254	310	564

IZENPE:

Sensibilización en igualdad

Lenguaje no sexista

La igualdad hace a la empresa más eficiente.

	♀	♂	
2018	9	5	14
2019	9	5	14
2020	9	5	14
2021	9	5	14
	36	20	56

### 3. Programa: Genero-ikuspegia lan-prozeduretan

Nabarmendu behar da sektorekako eta zeharkako plan guztietan genero-ikuspegia txertatzeko beharra, hala nola egungo Gobernantzaren, Berrikuntza Publikoaren eta Gobernu Digitalaren Plan Estrategikoa 2030, Ardatz 2030, diseinuan eta proiektuetan genero-ikuspegia txertatzeko, bai diseinu-fasean, bai ezarpen- eta jarraipen-fasean, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Berdintasunerako Unitate Administratiboaren parte-hartzea bermatuz.

Halaber, egindako estatistika inkesta eta datu-bilaketetan sexuaren aldagaia sistematikoki jasotzen da. Era berean, sexuaren arabera bereizten da informazioa ustiatu eta interpretatzerakoan.

Hala eta guztiz, hainbat arazo daude datuak ustiatzeko Administrazioak daukan sistema informatikoarekin. Hori dela eta, arazo horiek zeintzuk diren aztertu beharko da, konpondu ahal izateko, eta sexuka ezberdinetako datuak ondo ustiatu ahal izateko.

Bestalde, berdintasun klausulak txertatzen dira egiten diren kontratuetan, hain zuzen ere, kontratatutako jarduerak gauzatzeko baldintza bereziak definitzerakoan.

Prestatzen diren dokumentuetan hizkuntzaren erabilera inklusiboa gero eta gehiago egiten da. Hala eta guztiz ere, ahozkoan ez da berdina gertatzen, sarritan ez baita lengoaia inklusiboa erabiltzen.

Berdintasun klausulak sartzeko enkarguei dagokionez: Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Zuzendaritzaren 3/2018 Zirkularra enkarguetan berdintasun-klausula sartu ahal izateko diseinatu zen. 2019an haren ezarpenaren jarraipena egin zen, eta zirkular horren aplikazio txikia ikusi da. 2021ean zehar jarraipen hori egin bada ere eta enkarguetan klausula tipoaren aplikazioa handitu dela ikusi bada ere, jarraitu behar da enkarguen jarraipena eta kontrola egiten.

Lan beragatik edo balio bereko lanagatik ordainsari berdina jasotzeko eskubidea nazioarteko, Europako, Estatuko eta EAEko legeriak aitortutako eta babestutako eskubidea da. Hori dela eta, Euskadin Soldata Balioa Murrizteko Ekintzarako Estrategia eta Plan Operatiboaren garapena arau-esparru horren barruan eratzen da, eta bat dator nazioartean soldata-berdintasunerako eskubidearen eta emakumeen eta gizonen arteko ordainsari-diskriminaziorik ezaren inguruan garatutako estrategia eta plan nagusiekin. Estrategia hori hainbat ardatzetan egituratzen da. Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak horietako batzuk landuko ditu: soldata-arrakala eta administrazio publikoa gaiari buruzko prestakuntza-programa bat garatzea, eta Eusko Jaurlaritzako soldata-arrakalaren diagnostikoa egitea, besteak beste.

Euskadin soldata-arrakala murrizteko 2030 Estrategiari dagokionez, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak neurri hauek guztiz garatu ditu:

- Erakunde publikoetako zuzendaritza-postuetan eta administrazio-kontseiluetan emakumeen presentzia aztertzea.
- Aitatasun- eta amatasun-baimenak parekatzea 18 astera arte, bai eta zainketa-baimenak ere Euskal Administrazio Publikoan.

Zati batean garatu du:

- Telelanak Euskal Administrazio Publikoan izandako esperientzien inpaktua ebaluatzea.

2019an inkesta bat egin zen langileen artean; telelanean ari ziren 210 pertsonek, 110 arduradunek eta 108 lankidek parte hartu zuten.

2030. strategiaren barruan, hurrengo urteetan honako hauek garatu behar ditu:

- Soldata-arrakalaren eta administrazio publikoaren arloko prestakuntza-programa bat garatzea.

- Erakunde publikoetako zuzendaritza-postuetan eta administrazio-kontseiluetan emakumeen presentzia aztertzea.
- Telelanari buruzko dekretuarekin batera txosten tekniko bat egitea.
- Eusko Jaurlaritzako soldata-arrakalaren diagnostikoa egitea.
- EAEko erakunde, erakunde autonomo eta enpresa publiko nagusietako soldata-arrakalaren diagnostikoa egitea.

## 4. Programa: Koordinazioa eta elkarlana

Berdintasunaren aldeko koordinazioaren arloan, sailak berdintasun-politikak sustatzeko ezarri diren koordinazio-egitura guztietan parte hartzen du, alderdi teknikoan eta politikoan.

Berdintasun Unitateak egitura desberdinak koordinatzen ditu eta egitura desberdinetan hartzen du parte:

- Saileko berdintasun teknikariak Saileko Talde Teknikoa kudeatzen du, berdintasun-politikak modu efektiboan aplikatzen laguntzeko, sailari atxikitako edo lotutako zuzendaritzetan, erakunde autonomoetan eta sozietate publikoetan; horretarako, informazioa eta laguntza jasotzen dute berdintasun-politikak garatzeko prozesuaren fase bakoitzean.
- Halaber, saileko berdintasun teknikariak emakumeen eta gizonen berdintasunerako erakundearteko talde teknikoan parte hartzen du. Bertan Eusko Jaurlaritzak, foru aldudiek eta toki erakundeek hartzen dute parte eta berdintasunaren alorrean egiten diren politikak eta programak kordinatzeaz arduratzen da.
- Lan Harremanen Zuzendaritzako berdintasun teknikariak Berdintasun Batzorde Iraunkorra (BBI) kudeatzen du eta Administrazio Orokorreko berdintasun planaren ezarpena bultzatzeaz arduratzen da.
- IVAPeko berdintasun teknikariak berdintasuna lantzeko barruko lantaldea kudeatzen du, berdintasun-politikak modu efektiboan aplikatzen laguntzeko IVAPen.
- Emakundek Sailarteko Talde Teknikoa kudeatzen du, non Eusko Jaurlaritzako berdintasun teknikari guztiek parte hartzen duten.
- Bestalde, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Berdintasun Unitateak koordinazio bilerak antolatzen ditu, berdintasun politikak aurrera eramateko ezartzen ari diren ekimenei buruz informazioa emateko eta haien jarraipena egiteko.

Sailen eta instituzioen artean 2018tik 2021era arte egin diren koordinazio-bilerei dagokienez, bileren kopurua aldatu da, lan-taldeen, kontraste-bileren, antolatutako eztabaida-taldeen eta abarren arabera.

## 5. Programa: Parte-hartzea eta eragina

Administrazio Orokorrean, gaur egun 376 goi-kargu edo zuzendaritza-kargu (behin-behineko langileak barne) daude. Horien % 49,73 emakumeek betetzen dituzte, eta % 50,27 gizonek.

Sailetan emakumeek eta gizonek duten ordezkariari dagokionez, nabarmentzekoa da emakumeen eta gizonen arteko presentzia orekatzen ari dela sail gehienetan. Emakumeen ordezkari txikiena duten sailen artean daude, besteak beste, Ekonomia eta Ogasun Saila (emakumeen % 34,6 eta gizonen % 65,4) eta Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila (emakumeen % 30 eta gizonen % 70).

Emakumeen ordezkari handiena duen saila Lan eta Enplegu Saila da (emakumeen % 63,2 eta gizonen % 36,8).

### 3.1.2. ESKU HARTZEKO ARDATZEN GAINKO ONDORIOAK

#### 1. ARDATZA. Emakumeak ahalduntzea.

Ondorioztatu liteke saila saiatzen dela 1. ardatza (Emakumeak ahalduntzea, hainbat eskumen-eremutatik) betetzen; horretan kontuan hartu behar da eskumen horiek mugatuta daudela.

Emakumeen ahalduntze indibidualari eta kolektiboari dagokienez, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak, zehazki, teknologia berrien arloan, administrazio elektronikoa sustatu du, administrazioa prozeduren digitalizazioaren bidez garatzeko. Administrazio elektronikoak aukera ematen du lekualdatze fisikoak ezabatzeko, eta, ondorioz, denbora eta dirua aurrezteko, izapideak arintzeko eta administrazio-informazioa hobeto eskuratzeko. Neurri horrek emakumei eta gizoni lagunduko die lekualdaketarako denbora murrizten eta,aldi berean, IKTen erabilera sustatuko da, genero-arrakalak murrizten direlako.

Bestalde, KZGUNEA teleguneen sarearen bitartez, herritarrek Internet erabil dezaten sustatzen da. Gainera, trebakuntza sustatzen da teknologia berrietan, Interneteko nabigazioan eta IT Txartela lortzeko probak antolatzen eta egiaztatzen dira. Erabiltzaile estandarren profila egonkorra da urtez urte: emakumeak dira zentro horietako zerbitzuak erabiltzera joaten diren pertsonen % 58. Emakumeak dira, era berean, alfabetatze digitaleko ikastaroen eta Interneteko trebetasunak eta abildadeak eskuratzeko saioen hartzaile nagusiak. 2020. urtean, erabiltzaile berrien artean, % 56,9 emakumeak izan ziren eta % 43,1 gizonak.



Horrenbestez, datuek erakusten dute sare horrek alfabetatze digitalerako aukerak eta IKTetara nahiz Internetera sartzeko aukerak ematen dizkiela informazioaren gizartetik at geratzeko arriskua duten EAEko herritar askori, eta, bereziki, egoera ahulenean dauden emakumeei (etxeko andreei, landa-eremuetako emakumeei, etab.).

Emakumeek, besteak beste, ingeniartzaren, teknologiaren eta elektronikaren arloetan egiten dituzten ekarpenak jakinarazten dira: batetik, AURRERA aldizkariaren Protagonistak atalean haien biografiak argitaratuz; eta bestetik, Ada Byron saria emakume teknologoei eta atxikita dauden erakunde publikoei hedatuz, JAKINA intraneten bidez. Bestalde, emakume zientzialarien ekarpenak ezagutarazteko, AURRERA buletinean otsailaren 11ren inguruan, Emakume eta Neska Zientzialarien Nazioarteko Egunean, artikulua bat argitaratzen da.

## **2. ARDATZA. Ekonomiak eta antolamendua eraldatzea, eskubideak bermatzeko.**

Emakumeen eskubideak bermatze aldera, ekonomiak eta antolaketa soziala eraldatzeko, zainketen antolaketa sozial berria sustatzen duten neurriak ezarri dira, zainketen ikusgarritasuna eta balioa areagotzeko. Horrez gain, zaintzak emateko erantzunkidetasuna sustatu da; esaterako, Enplegu Publikoaren Lege-proiektuaren bidez sustatu dira Administrazioako langileen gurasotasun-baimen berdinak, transferitu ezinak eta soldataren % 100 ordainduta.

Gainera, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak, ZUZENEAN herritarrei laguntzeko zerbitzuaren bitartez, herritarrei laguntza ematen zaie hainbat bideren bitartez (aurrez aurre, telefonoz, Telegram bidez eta Interneteko postontziaren bidez). Gainera, goizeko 8:00etatik 19:30era arte telefonoz ematen da arreta. Horrez gain, herritarrei ordu-malgutasuna eskaintzen zaie, lineako kudeaketak eta izapideak edozein ordutan egin ditzaten, eta Telegram bidez edo Interneteko postontziaren bidez komunikatu ahal izateko. Herritarrei sexuaren arabera arreta emateko bide anitzak erabiltzeari dagokionez, hauxe egiaztatu da:

2021ean, telefono-bidea erabili duten pertsonen % 58 emakumeak dira; eta % 29, gizonak. Aurrez aurreko arreta: % 59 emakumeak, % 41 gizonak.

2020an, telefono-bidea erabili zuten pertsonen % 63,37 emakumeak dira; eta % 20,8 gizonak. Aurrez aurreko arretan % 61,93 emakumeak dira eta % 37,96 gizonak.

2019an, telefono-bidea erabili zuten pertsonen % 61 emakumeak dira eta % 34 gizonak. Aurrez aurreko arreta, % 61 emakumeak eta % 39 gizonak. Telegram bidez ere gero eta emakume gehiagok parte hartzen dute.

2018. urtean gizon gehiagok erabili zuten Telegram Administrazioarekin kontaktatzeko, baina 2021ean emakume gehiago izan dira Telegram bitartez komunikatu direnak, nahiz eta ezin den bereizi kasu batzuetan emakumea ala

gizona den, eta datu zehatzak ezin diren lortu. Gainera, urte hauetan zehar erabiltzaileek zerbitzuaren arreta- eta irekiera-ordutegiari 8 - 9 puntu eman diote, 10 punturen gainean.

Langileak eta herritarrak sentsibilizatzeko, Euskadi.eus webgunearen, sailaren webgunearen eta Administrazio Orokorreko langileen intranetaren bidez, kartelak banatu dira, kanpainetako irudiak txertatuta. Horrez gain, saileko langileei mezu elektronikoak bidali zaizkie, eta saileko egoitzetan kartelak jarri dira, besteak beste.

### **3. ARDATZA. Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak.**

Sexu-jazarpenari eta sexuaren ziozko jazarpenari dagokienez, 2006an, Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren urriaren 4ko Agindua onartu zen. Laneko sexu-jazarpenera edo jazarpen moralak gertatuz gero, erabil daitezkeen prebentzio-neurriak eta jardun-prozedura zehazten ditu, Administrazio Orokorrearen eta haren erakunde autonomoen esparruan. Hala ere, 2006tik aurrera ez da jaso Administrazio honetan agindu horretan zehazten den protokoloa martxan jartzeko eskaerarik (sexu-jazarpenari edo jazarpen sexistei dagokienez).

2020. urtean protokoloa lantzen hasi zen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean eta haren erakunde autonomoetan sexu-jazarpenerako eta sexuan oinarritutako jazarpeneko kasuetan jarduteko prozedura arautzeko, eta 2021eko irailaren 1ean argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Bestalde, udal batzuek KZGUNEko prebentzio-plana 2018an sinatu zuten, herritarren eta KZguneetan lan egiten duten langileen arteko gatazka-aukerak murrizteko. Harrezkeroztik, udal guztien prebentzio-plan amankomun bat sinatzen saiatu da baina oraindik ez da lortu prebentzio-plan amankomun hori sinatzea. Hori dela eta, prebentzio-plan hori lantzen jarraituko da.

Bestalde, jendaurrean jarduten duten langileen indarkeriari aurrea hartzeko, 2010ean Jendaurreko Langileen aurkako Jokabide Bortitzei eta Erasoei aurrea hartzeko Plana martxan jarri zen. 2010-2014 aldian, 52 gertaera bortitz jakinarazi dira. Erasotzailatik 43 gizonak ziren eta 9 emakumeak. Erasandako pertsonatik 9 gizonak ziren eta 43 emakumeak.

## 3.2. HELBURU ESTRATEGIKOAK

BERDINTASUN-ARLOKO AGINDUAK																									
GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILAREN HELBURU ESTRATEGIKOAK	Arduraduna	Kro nog ram a	GOBERNU PROGRAMAREKIKO BATERAGARRITASUNA				VII. PLANAREKIKO BATERAGARRITASUNA																		
							GOBERNU ONA					1. ARDA TZA			2. ARDATZA			3. ARDATZA							
			2018	2019	2020	1. ZUTABEA	2. ZUTABEA	3. ZUTABEA	4. ZUTABEA	P.1	P.2	P.3	P.4	P.5	P.1	P.2	P.3	P.4	P.5	P.6	P.7	P.8			
GOBERNU ONA SUSTATZEKO PROGRAMAK	1. Berdintasun-politikak garatzeko aurrekontuak handitzea. (B.G.2)	Zerbitzu Zuz.							<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
	2. Berdintasunerako plangintza eta horren ebaluazioa areagotzea eta hobetzea (B.G.3)	Funtzio Publikoa Z.Zuzendar Ejje,Izenpe,Itelazpi							<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
	3. Berdintasunerako unitate administratiboak indartzea. (B.G.4.)	HAEE-IVAP Zerbitzu Zuzendaritza							<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
	4. Prestakuntza ematea erakunde publikoetako langile guztiei, baita politikariei ere. (BG.5).	Zerbitzu Zuz. Funtzio Publikoko Sailburuordetza IVAP							<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
	5.Estatistiketan eta azterlanetan genero-ikuspegia txertatzea (B.G.6.)	Zuzendaritza guztiak							<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
	6. Araudian berdintasunaren printzipioa txertatzea. (BG.9).	Zuzendaritza guztiak Araubide Juridikoaren Sailburuordetza							<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
	7. Aurrekontuetan genero ikuspegia txertatzea. (BG.10).	Zuzendaritza guztiak							<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
	8. Genero-ikuspegia barneratzea sektoreetako eta zeharkako planetan. (BG.11).	Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritza							<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
ESKU- HARTZE	9- Emakumeen ahalduntzea Emakumeen ahalduntze personal eta kolektiborako laguntza (1)	Gobernantzako BUAk						<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	
	10- Emakumeen ahalduntzea Emakumeen ahalduntze sozial eta politikorako laguntza (2)	Zuzendari. guztiak Funtzio Publikoa						<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input checked="" type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	



#### 4.1. BERDINTASUNERAKO URTEKO PLANGINTZA

Horrenbestez, urteko edo bi urteko plan bat prestatuko da, berdintasun-politikak ezartzeko, eta hura bera ebaluatuko da ondoren. Esandako plan horretan, helburuak, ekintzak, kronograma (hiruhilekoa) eta aurrekontua zehaztu beharko dira. Prozesu hori estandarizatzeko, Excel bidezko plangintza-eredu bat erabiliko da.

Excel bidezko urteko plangintzaren osagarri modura, urteko planari buruzko informazio laburtua jasotzeko aukera ematen da, sailarteko eta sailen barruko koordinazio-egiturei haren berri eman ahal izateko.

#### 4.2. BERDINTASUNERAKO EGITURAK

Atal honetan berdintasun-planaren esparruan berdintasuna sustatzeko eta koordinatzeko oinarrizko egiturak, eskema moduan, azaldu dira. Haietako batzuk sailak sortu ditu; eta, beste batzuetan, sailak parte hartzen du:

GOB. PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILAREN PARTE-HARTZEA DUTEN BERDINTASUNA SUSTATZEKO ETA KOORDINATZEKO EGITURAK. XI. LEGEALDIA	
EGITURA MOTA	EGITURA
SUSTAPENA	<b>EMAKUNDE</b> da EAEn berdintasun-politikak sustatzeaz, aholkularitza emateaz, plangintza egiteaz eta ebaluatzeaz arduratzen den organoa.
	<b>SAILAREN BERDINTASUNERAKO ADMINISTRAZIO-UNITATEA</b> plana egikaritzeaz, haren segimendua egiteaz eta ebaluatzeaz arduratuko da, eta saileko organoei eta langileei aholkularitza eskainiko die.
ERAKUNDE ARTEKO KOORDINAZIOA	<b>EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ERAKUNDE ARTEKO BATZORDEA</b> Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek eta toki-erakundeek berdintasunaren alorrean egiten dituzten politikak eta programak koordinatzeaz arduratzen den organoa da; erakunde arteko talde teknikoa dauka, berdintasunean espezializatutako teknikariek osatuta.
SAILARTEKO KOORDINAZIOA	<b>EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO SAIL ARTEKO BATZORDEA</b> Eusko Jaurlaritzaren berdintasun-jarduerak koordinatzeko organoa da, eta berdintasunaren arloan aditua den <b>Sailarteko Talde Teknikoaren</b> babes dauka.
SAILAREN BARNE-KOORDINAZIOA	<b>SAILEKO TALDE TEKNIKOAK:</b> Saileko Berdintasun teknikariak gidatuta eta koordinatuta, bere helburua da berdintasun-politikak modu efektiboan aplikatzen laguntzea sailari atxikitako edo lotutako zuzendaritzetan, erakunde autonomoetan eta sozietate publikoetan; horretarako, informazioa eta laguntza jasoko dute berdintasun-politikak garatzeko prozesuaren fase bakoitzean.
GIZARTEAREN PARTE-HARTZEA	<b>ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOETAKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO PLANEAN EZARRITAKO BATZORDE IRAUNKORRA.</b> Planaren ezarpena bultzatzeaz arduratzen da. Batzorde paritarioa da, Administrazioari langileek eta sindikatu-ordezkariek osatzen dute.

### 4.3. JARRAIPENA EGITEKO SISTEMA

---

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planaren jarraipen-sistema oinarritzko tresna izango da; haren bidez, sailak XII. Legealdian egindako berdintasun-politikaren jardunak, lorpenak eta inpaktuak hausnartu ahal izango dira. Alde horretatik, emaitza positiboak izan dituzten jardunbideak eta kudeaketa-ereduak zein diren adieraziko du, baita hobetzeko beharra dutenak ere; aldi berean, hasieran aurreikusi gabeko jarduerak baina ezarpen-prozesuak aurrera egin ahala egokituz jotakoak zein diren ere identifikatuko ditu. Azkenik, erabaki politikoak eta teknikoak hartzen laguntzeko, berdintasuna sailaren erakunde-kulturaren, jardunean eta esku-hartzean biltzen dela bermatzeko.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak onartu dituen konpromisoen **bi jarraipen mota** egingo dira:

- ▶ Lehenik eta behin, sailak eta haren organismo publikoek urtero informazioa xehatua emango diote Emakunderi, **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana** ebaluatzeko, erakunde publiko guztietarako apropos diseinatutako jarraipen mekanizatua eta telematikoa egiteko sistemaren bidez: [Berdintasunerako Planaren ebaluazioa eta jarraipena egiteko aplikazioa](#).

Jarraipen horren emaitza urtero islatuko da **agintari publikoen jardunari buruzko memoria batean**, Emakundek argitaratzen duen berdintasun-plana betearazteko. Txosten horiek emandako informazioa biltzen dute, eta EAeko Administrazio Publikoaren jardueren analisi kuantitatiboa eta kualitatiboa biltzen dute: [Politika publikoen ebaluazioa](#)

Horrez gain, informazioa biltzeko eta zabaltzeko beste sistema batzuk ere gaitu dira, EAeko administrazioek egindako jarduerekin lotuta: [Berdintasun-mapa](#) eta [jardunbide egokien bankua](#)

Bigarrenik, sailak legealdiaren bi unetan informazioa eman beharko du, Emakundek koordinatzen duen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordearen bidez: **legegintzaldiko lehentasunak ezartzen erdibidean eta amaieran izandako jarraipena**; horretarako diseinatutako txantiloien bidez eskumenak aintzat hartuta identifikatutakoak, alegia.

Horretarako, sailak berak informazioa jasotzeko metodo soila eta arina aurreikusi du; haren bidez, urteko **dokumentu labur batean** Saileko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planaren betetze-maila islatuko da. Esandako dokumentu horren bidez, Emakumeen eta Gizonen Sailarteko Batzordean urteko planaren egikaritze-maila adieraziko dute.

## PLANAREN BETETZE-MAILARI BURUZKO JARRAIPENAREN LABURPEN-FITXA

### EKINTZAK

	Absol.	%	INFORMAZIO GARRANTZITSUA
Egikarituta			
Martxan			
Berriak			
Bertan behera			
<b>GUZTIRA</b>			
Aurrekontuarekin:			

### AURREKONTUA

Ekintzetara aurrekontua bideratutako urteko	Esleitua <input type="checkbox"/> .... € Zenbatetsia <input type="checkbox"/> .... €	Urteko aurrekontu osoaren gaineko ehunekoa: % .....
Aurrekontua beharretara egokituta dago: <input type="checkbox"/> Bai <input type="checkbox"/> Ez		
Aurrekontua handitu egin da, aurreko urtekoarekin alderatuta: <input type="checkbox"/> Bai <input type="checkbox"/> Ez <input type="checkbox"/> .... €		
Berdintasuneko aurrekontua Unitatearen urteko	Bai <input type="checkbox"/> Ez <input type="checkbox"/> .... €	
Aurrekontua beharretara egokituta dago: <input type="checkbox"/> Bai <input type="checkbox"/> Ez		
Aurrekontua handitu egin da, aurreko urtekoarekin alderatuta: <input type="checkbox"/> Bai <input type="checkbox"/> Ez <input type="checkbox"/> .... €		

### JARDUNBIDE EGOKIAK


### BALORAZIO KUALITATIBOA

--

### HOBEKUNTZA-PROPOSAMENAK, HURRENGO PLANGINTZARAKO

--

- Bigarrenik, [EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plan](#)ean ezartzen da **berdintasun-politiken eraginaren ebaluazioa** epe ertainera eta epe luzera egitea, **laburpen-adierazleen sistema estrategikoaren bitartez (166-119 orr.)**. Sistema hori [Generoaren Berdintasun Adierazlea](#) abiapuntu

hartuta definitu da. Sailak, eskumenen arabera eta parte hartzen duten gainerako erakundeekin batera, jarraipena egiten lagunduko du; eta, batez ere, adierazleak garatzen lagunduko du. Horrek eskatzen du lan bateratua eta koordinatua egitea, berdintasunaren arloan aurrera egiteko EAEko politikan, ekonomian, kulturen eta gizartean. Horrela, Euskadi genero-berdintasunaren arloan aurrerapen handienak egin dituzten herrialdeetako bat izango da.

- ▶ Hirugarrenik, IVAPek bere aplikazioan jasoko ditu Berdintasuna neurtzeko adierazleak eta baita urteko jardueren oroitza ere.

#### 4.4. KOMUNIKAZIO-SISTEMA

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planaren beste oinarrietako bat —diseinuaren, kudeaketaren, ezarpenaren eta ebaluazioaren fasean— saileko langileen inplikazioa lortzea da, dela politikoa, dela teknikoa, sailarteko koordinazio bikain baten bidez. Era berean, garrantzitsua da gizarte-partaidetzarako prozesuak artikulatzea, emakumeen interesak defendatzen dituen elkarte-ehunari arreta berezia eskainita.

Alde horretatik, planak komunikazio ona eskatu du **barruan zein kanpoan**, sailak, bere eskumen-esparruan, emakumeen eta gizonen berdintasun-politikak sustatzeko hartzen dituen konpromisoak sozializatzeko.

Komunikazio-plan horrek bi une garrantzitsuak izango ditu:

- planaren onarpen-faseko komunikazioa
- planaren ezarpen-faseko komunikazioa

KOMUNIKAZIO-PLANA	
HELBURU OROKORRA	KONPROMISOEI BURUZKO INFORMAZIOA EMATEA ETA GARDENTASUNARI LAGUNTzea
<b>1. PLANAREN ONARPENA</b>	
<b>BARRUAN</b>	
Helburu espezifikoak	Sail osoari helburuak, ardurak eta lan-egutegia helaraztea, maila politikoan eta teknikoan plana legitimatzeko.
Ekintzak	
▶ XII. Legealdiko Berdintasunerako Planaren zirriborroa aurkeztea Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Zuzendaritza Kontseiluan.	Zerbitzu Zuzendaritza
▶ Emakunderi zirriborroaren plana bidaltzea.	Zerbitzu Zuzendaritza
▶ XII. Legealdiko Berdintasunerako Planaren behin betiko bertsioa onartzea Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Zuzendaritza Kontseiluan, Emakundek bere txostena egin eta gero.	Zuzendaritza Kontseilua
Arduraduna	



▶ Saileko langile guztiei posta elektronikoz bidaltzea.	Zerbitzu Zuzendaritza
▶ STTn (Saileko talde Teknikoan) plana aurkeztea.	Zerbitzu Zuzendaritza
▶ Plana Jakina intraneteko atariaren bidez zabaltzea.	Zerbitzu Zuzendaritza

## KANPOAN

<b>Helburu espezifikoa</b>	<b>Herritarrei jakinaraztea berdintasunaren alorrean zer neurri ezarri nahi diren sailaren eskumen-esparruan, informazio-eskubidea bermatzeko eta berdintasunerako politiken jarraipena eta gizartearen inplikazioa bermatzeko.</b>
----------------------------	---

Ekintzak	Arduraduna
▶ «Berdintasun-esparrua» sortzea Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren webgunean, saileko berdintasun-politiken berri emateko. Saileko BUAK emango lituzke edukiak.	Zerbitzu Zuzendaritza.
▶ Sailaren webgunearen bidez planaren berri ematea.	Zerbitzu Zuzendaritza

## 2. PLANA EZARRI BITARTEKO ZABALKUNTZA

### BARRUAN

<b>Helburu espezifikoa</b>	<b>Plangintzaren betetze-mailaren berri ematea, lorpen nagusiak nabarmenduta eta zuzendaritzek egindako lanari balioa emanda.</b>
----------------------------	---

Ekintzak	Arduraduna
▶ Urteko bilera bat egitea urtearen amaieran, Saileko berdintasun-egitura politikoeekin eta/edo teknikariekin betetze-mailari buruzko memoria aurkezteko.	Zerbitzu Zuzendaritza
▶ Komunikazio-kanalak ezartzea, saila osatzen duten pertsona guztien sarbidea eta partaidetza bermatuta.	Zerbitzu Zuzendaritza

### KANPOAN

<b>Helburu espezifikoa</b>	<b>Plangintzaren betetze-maila aditzera ematea, lorpen eta jardunbide egoki nagusiak nabarmenduta.</b>
----------------------------	--

Ekintzak	Arduraduna
▶ Jardunbide onak zabaltzeko aukera aztertzea.	Zerbitzu zuzendaritza

#### 4.5. AURREKONTU-SISTEMA

---

Nabarmentzekoa da gogoraraztea plan hau txertatu ahal izateko ezinbestekoa dela beharrezko baliabideak edukitzea.

Alde horretatik, Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna eta Emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizimoduari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak hauxe dio 14. artikuluan: «*Autonomia Erkidegoko Administrazioak, Foru Administrazioak eta Toki Administrazioek euren aurrekontuetan urtero esleitu eta zehaztuko dute zer baliabide ekonomiko behar diren lege honetan aurreikusitako funtzioak baliatzeko eta aurreikusitako neurriak exekutatzeko*».

Horrez gain, administrazio autonomikoa eta foru-administrazioa ordezkatzeko dituen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordeak 2016ko uztailaren 21ean adostu zuen *poliki-poliki handitu egin beharko dela esandako administrazio horietan berdintasun-politikerara bideratutako aurrekontuen ehunekoa*.

Horrenbestez, baliabide horiek zehatzago ipini beharko dira urteko planetan, haietan zehaztuko baita legealdiko plan hau. Nolanahi ere, nabarmentzekoa da aurrekontua, batetik, berdintasunerako administrazio-unitate baterako partida espezifiko batean banakatuko dela, otsailaren 18ko 4/2005 Lege honen 11. artikuluan jasota dagoen bezala; eta, bestetik, urteko planetan aurreikusitako ekintzak ezartzeko aurrekontu propio batean.

# ERANSKINAK

---

[V Plan de actuación en materia de igualdad de EJE. 2021-23](#)

[III Plan para la Igualdad de Mujeres y hombres ITELAZPI. 2019-23](#)

[III Plan para la igualdad de Mujeres y hombres en IZENPE. 2021-24](#)